

Jean-Jacques Rousseau: bihotzaren mintzoa

ESTEBAN ANTUXUSTEGI ETA CRISTINA LASA

UPV/EHU

(Jean-Jacques Rousseau: Words from the heart)

Abstract

Jean-Jacques Rousseau is a singular enlightened thinker who takes reason as one of the causes that brings about the degradation of humanity. Likewise, he argues, reason masks humanity's real condition of unhappiness, inequality and lack of solidarity. Based on a thorough reading of Rousseau's writings, this paper aims, firstly, to examine Rousseau's vision of moral virtues, paying attention to the process of moral education. Secondly, to discuss the place of civil religion in politics and related issues like the return to nature, the human responsibility for evil or the role of conscience as an infallible moral judge. Lastly, the paper studies the reception of Rousseau's ideas by Robespierre up to the point of turning him an apostle and precursor of the French revolution.

Keywords: Rousseau, Robespierre, reason, moral education, Enlightenment, civil religion

Aipatu garaian, letretan eta filosofian izan zirenen artean, gizon bat, bere arimaren eta izaeraren handitasunagatik, agertu zen gizate-riaren maisutzarako duina. Egia osoarekin egin zion eraso tiraniari; entusiasmaz mintzatu zen jainkotasunaz, bere elokuentzia kementsu eta zintzoak bertutearen xarma marra adoretsez pintatu zuen (...) Irakaspenaren bere garbitasuna izatasunetik eta bizioaren gorrototik zetorkion, eta filosofoen izena zikintzen zuten sofista azpikariekiko gorroto garaiezinak bere gain ekarri zuen etsai eta arerio faltsuen gorrotoa eta erasoaldia.

A, bera Panteoira (1793ko urriaren 12an) eraman duen iraultza horren lekuko izan balitz! Nork jar zezakeen zalantzan beraren arima esku-zabalak justiziaren eta berdintasunaren kausa entusiasmaz besarkatuko zuenik?

(Robespierrek eginitako Rousseauaren gorazarrea Konbentzio Nazionalaren aurrean, II. urteko Florialeko 18an, 1794ko maiatzaren 7an)

«Emozioa-Intuizioa», denuntzia soziala eta soluziobideak

Rousseuren sarrera modu erretorikoan egiteko Kant erabiliko dugu, autore horrek *Emilio* eta *Gizarte-Hitzarmena* ezagutu bezain laster honako gogoeta egin baitzuen:

J.J. Rousseuren idatziak denbora pasa baino haratagoko animoarekin irakurtzen dituenaren lehenengo iritzia zera da, adimen erne apartaren, jeinuaren etorri prestuaren eta arima sentiberaren aurrean aurkitzen dela, edozein garaitan nahiz edonon eman den maila altuko idazlearekin topo egiten duela. Ondoren, ohiko topikoetatik hain urruti dauden haren ikuspuntu paradoxiko eta berezien eraginez zalantzak asaldatuta geldituko da, eta nork bere buruari galdegiten dio ea egile horrek ez ote duen erabiltzen halako ezohiko gaitasunaren eta elokuentziaren indar magikoa originaltasun liluragarriaren bila, zorrotasun sarkor hori haren aurkarien artean gailenduz. Hirugarren gogoeta batek, ostera, gaztedia behartzen du adiera komuna gurtzera printzipio logikoen eta moralen bidez.¹

Rousseuren etorri apartarekin liluratuta, Kantek bere buruari honako lana jarri zion: «Rousseau behin eta berriro berrirakurri haren estiloaren edertasunak distraitu ez nazan arte, eta horrela hura arrazoimenaren bidez ezagutu».²

Hala ere, Kantek aipatutako arrazoimen hori, Rousseuren ustez, gizateriaren degradazioa ekarri duten elementuetako bat izan da, eta haren erabilera zuzena egiteko aukera baztertzen ez duen arren, momentuz, zoritxarra, desberdintasuna eta elkartasun eza «mozorrotzeko» tresna bihurtu da.

Ondoren, Rousseau jarriko dugu mintzatzen, ez baitago haren jarduna baino mezulari hobeagorik bere pentsamendua azaltzeko. Rousseuren ustez, lehenago genioen moduan, arrazoimenak «argi-zuzi jainkotiarrek» —*Eloisa berrian* izendatzen duen moduan— objektuak isolatzera, aztertzer eta zati-tzera jotzen du, horiek zentzu orokorarekin eta gizakiaren bizitza zehatzarekin duten inplikazioaren kaltetan. Aitzitik, arrazoiaren analisisiei zentzu bateratua ematen diena, eta analisi horiek bizitza pertsonalarekin lotzen dituen sentimendua da. «Emozio-intuizio» moduko bat litzateke, giza izatean idatzita dauden printzipioez —askatasunaz, berdintasunaz, errukiaz, erlijiotasunaz...— jabetzeko gaitasuna ematen diguna.

Rousseuren idazle-ibilbidea paseo sonatu batean sortu zen, non bere pentsamendua izango zena errebelatu baitzitzaien. Guztia «Vincenneseko ar-

¹ Ak., XX, 43-43 or. [Kanten aipamenak «Ak» laburdurarekin adierazten dira, liburukiaren zenbaki erromatarra eta orrialdearen zenbaki arabiarra erabiliz jarraian.]

² Ak., XX, 30 or.

gialdian» hasi zen, une hartan «beste unibertso bat ikusi nuen, beste gizon bat bilakatu nintzen», Rousseau berak, pasarte guztiz adierazgarri batean, kontatzen digun moduan:

Garai hartan Vincennesen preso zegoen Diderot ikustera nindoala, bidean barrena patrikan nuen *Mercure de France* aldizkariko ale bat hasi nintzen gainetik irakurtzen. Nire aurreneko idatziari sorrera eman zion Dijongo Akademiak egindako lehenbiziko galdera ikusi nuen. Inoiz gertatu bada bat-bateko argialdi moduko zerbait, hori izan zen irakurketa horrek nigan eragin zuen astindua: bat-batean mila argik itsutu zuten nire adimena; asaldura esanezinera eramán ninduten ideia bizi kontaezinak azaldu ziren indar eta nahaste-borraste handiz; mozkorraldiak sortzen duen antzeko zorabioak harrapatuta sentitu nuen nire burua. Taupada bortitzak bularra astindu eta estutu zidan; ibiltzean arnasa ezin harturik, etorbideko zuhaitz batzuen azpian etzan nintzen. Zer nolako argitasunez azalaraziko nituen sistema sozialaren kontraesan guztiak, zer nolako erraztasunez frogatuko nuen gizakia ona dela berez eta soilik instituzioek bilakatzen dutela gaizto, zuhaitz haren pean ikusi eta sentitu nuenaren laurdena idatzi ahal izan banu. Ordu laurden batez zuhaitz haren pean nire burua argitu zuten egia handien multzotik gogoratu ahal izan nuen guztia zurbiltasunez barreiatu nuen nire hiru idatzi nagusietan, hala nola lehenengo Mintzaldi horretan; desberdintasunaren inguruko beste hartan, eta hezkuntzari buruzko liburuan, banaezinak eta multzo bat osatzen duten hiru lan horietan. Ba ote nuen nik idazteko gaitasunen bat? Ez dakit. Pertsuasiorako ahalmen biziak beti eman izan dit nolabaiteko etorria»³.

Zenbait egilerentzat, testu horren muinean bi ezaugarri nagusitzen dira: kutsu agustiniar-platonikotik datorren sentimendu naturalen oroipenaren teoria, eta ezagutzaren eta ekintzaren arteko batasunaren ideia.

Edozein modutan ere, une hartan bertan, bere buruaren erretratua Malherbesen aurrean zirriborratzen duenean bezalaxe, Rousseau ohartzen da berezko duen pertsuasiorako gaitasunari leporatzen dion nolabaiteko elokuentziaren jabe dela. Ordutik aurrera, Rousseauen metodoak askotan nahasten diren bi bide hartzen ditu. Batetik, prosa sutsuan eginiko deskribapen hunkigarrikoa edo nobelen eredukoa, nahiz eta batzuetan horren kexu izan: «Nire estiloaren edertasuna alde batera utz dezatela eta soilik ongi ala gaizki arrazoitzen dudán egiazta dezatela arren eskatzen diet nire irakurleei»⁴. Eta bestetik, sistematizazio arrazoituaren eredukoa, garaiko testuinguru intelektuala ahazten ez duena eta, alde horretatik, jakintza desberdinetako datuak erabiltzeko eran, Rousseau, ilustratu tipiko eta eredugarri ere badugu.

³ Rousseau Malherbesi, Montmorency, 1762ko urtarrilaren 4an, 24. zenb., *Correspondance complète de Jean-Jacques Rousseau*, X. bol., 26 or.

⁴ *Ibid.*

Hala eta guztiz, nekez idazten du Rousseauk, eta berak azaltzen digu diskurtsoa eraikitzeko era:

Zailtasun sinestezinez joaten dira ordenatzen ideiak nire adimenean. Isilean mugitzen dira eta neure burua hunkitu eta sutu arte ontzen dira, eta, emozio horren baitan, bihotz taupada bortitzak eraginez, ez dut ezer argi ikusten; ez nuke hitz bakar bat ere idazten jakingo, zain egon behar dut. Baina sentitu gabe baretzen joaten da zirrara hori, katramila deseginez. Hortik dator idazteko daukadan erabateko zailtasuna. Nire eskuizkribu ezabatu, zirriboratu, nahasi eta asmaezinak ahalegin horren lekuko dira. Ez dago bat bera ere lauzpabost aldiz idatzi behar izan ez dudarik inprimategira eraman aurretik. Inoiz ez dut deus ere egin luma esku artean hartu eta mahaia eta paperaren aurrean. Arkaitzen artean eta basoetan paseatzen, gauzez eta nire insomnioak bitarte, aldiz, nire garunean idazten dut; pentsa daiteke zein mantso, are gehiago ahozko memoriarik gabeko gizona naizelako eta bizitza osoan sei bertso ere segidan ezin izan ditudalako gogoan hartu.⁵

Horrela hasi zuen edozeinen esku ez dagoen ibilaldia Rousseuren «emozio-intuizioak», ahalegindu gabe, zeren, Rousseuren ustez, zenbat eta «ilustratuago» izan gizakia, orduan eta urutiago baitago jatorrizko naturatik. Horren arabera, *philosophe* gehienak gizateriarentzat kaltegarriak dira; herri xehe eskolagabeak edo basa-izakiek, aldiz, printzipio ordenatzaile horiek irakats ditzakete. Hor agertzen da Rousseauk behin eta berriz salatzen dituen gizartearen gaitz nagusienetako bat, hau da, izatearen eta itxuraren arteko eta pentsamenduaren eta ekintzaren arteko disoziazioak dakarren kaltea.

Eta disoziazio horretaz jabetzen den une berean, Rousseauk legitimatua sentituko du bere burua gizartearen ustelkeria eta giza arrazoiaren aurrerabideak dakarren itxurakeria eta bidegabekeria salatzeke. Beraren ustez, aurrerabideak luxua eta aisia sortu ahala (arteen eta zientzien eragile diren neurrian), aberatsak asezin bilakatu eta txiroak aberastasun hutsalak eskuratu nahi izatera bultzatzen ditu, batak eta besteak —luxuak eta aisiak— ustelduz, finean. Azalpen horren eraginpean, Rousseau izango da aurrerabide zientifikoa eta teknikoa aurrerabide moraletik bereiziko duen lehena.

Baina, aurrerabidea errefusatzeaz gain, 1755eko *Gizakien arteko desberdintasunaren jatorri eta oinarriei buruzko mintzaldia* antropologia berriaren muin bihurtuko da. Egia esan, urte horretan, Rousseauk aro «eraikitzaileari» eman-go dio hasiera, eta, gizarteari kalte eragiten dioten gaitzak salatzen jarraitzeaz at, gizartearekin konpromisoa hartuz, soluziobideak proposatzeari lotuko zaio.

⁵ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, I. bol., 113-114 or.

Julia edo Eloisa berria

Rousseuren lehenengo nobela hau, lortu zuen arrakasta medio, nobela frantsesaren historian mugarri izan zen. *Julia edo Eloisa berria*, Julia aristokrataren eta Saint-Preux plebeioaren arteko maitasun apasionatu baten historia da. Nobelako protagonistek, komenentzia sozialen aurka, elkarren artean bertutea hobetzeari ekingo diote, beraien maitasuna sublimatuz. Obrak, eskutitzez osatutako egitura irekia duen neurrian, aukera ematen dio egileari, alde batetik, maitasun grinaren azterketa liluragarria egiteko, eta, bestetik, aurreneko bi *Mintzaldietan* (*Zientzien eta Arteen inguruko mintzaldia* eta *Gizakien arteko desberdintasunaren jatorri eta oinarriei buruzko mintzaldia*) hausnartutako ideien azalpena argitara emateko: naturarekiko maitasuna, hezkuntza, antzerkia, berdintasun soziala, erlijio naturala eta abar.

Baina lan horretan material autobiografiko ugari dago, eta nobelan Rousseau «bere bizitzan lehena eta bakarra izan zen amodioaz»⁶ mintzatzen zaigu, Sofia izenekoaz, eta harreman horretako atal bat deskribatzen du. Emakume horren izena, gainera, beste lan batzuetan agertzen da, bai heziketari buruzko lanean azaltzen den Emilio pertsonaiaren emazteaz ari denean, bai amaitu gabeko *Emilio eta Sofia, edo bakartiak* idazkian.

1757ko udara baino urte dezente lehenago ezagutu zuen Sofia, berau d'Houedoteko kondearekin ezkondu aurretik eta Saint-Lambert markesaren maitale bihurtu baino lehen. Baina emakume hori Rousseau *Julia edo Eloisa berria* idazten murgilduta zegoen urte hartako udaran agertu zen berriro, *Aitorpenetan* kontatzen duen moduan:

Objekturik gabeko maitasunez mozkortuta nengoen, hordialdi horrek liluratu zizkidan begiak, objektu hori beragan finkatu zen, nire Julia d'Houedot anderearengan ikusi nuen, eta laster d'Houedot anderea baino ez nuen ikusi, baina nik neure bihotzeko idoloa apaindu berri nuen bikaintasun guztiez jantzita (...) Zein krudeltasunez kiskali ninduen beraren bihotza beste maitasun batekin ase zegoen emakume harekiko pasioak.⁷

Rousseauk *Juliaren* eskuizkribuaren kopia bat egin zuen espresuki Sofiarentzat eta, aldi berean, *Eloisa berria* osatzen duten lirismoz beteriko gutunak idatzi zituen harentzat. Horietako batean, 1757ko udazkenean idatzitakoan, bada berotasun berezia duen pasarte bat:

Nire bihotzak bilatzen zintuen eta zureak ez ninduen uxatzen. Inoiz izan den maitasunik xamurrenaren adierazpena ez zitzaizun nazkagarri

⁶ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, I. bol., 439 or.

⁷ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, I. bol., 440 or.

bilakatzen. Ni ikusteko agertzen zenuen arretak ikusten ez ninduzunean faltan botatzen ninduzula zirudien. Zure begiek ez zieten neureei ihes egiten eta zure begiratuak ez ziren hotzak; paseatzean nire besoa bilatzen zenuen; ez zenuen erreparo gehiegirik jartzen zure dohainak nire aurrean ezkutatzen eta, neure ahoa zurea igurztera ausartzen zenean, batzuetan behintzat, zeureak eutsi egiten ziola sentitzen nuen.⁸

Lerro horiek irakurrita, badirudi Rousseauk arrakasta izan zuela eta, halako hitz limurtzaileekin, gorteiatutako dama errenditu egin zela. Baina ez zen, inondik inora, halakorik gertatu. Sofiak idazten zizkion gutunetan «nire herri-tar estimatua» goiburuarekin zuzentzen zitzaion, eta Rousseauen konpainiaz uda hartako bakardadea arintzeko baliatu zen, besterik gabe. Hori horrela izan zela Rousseauk berak egiaztatzen du *Aitorpenetan*, nahiz eta oso modu bitxian egin, eta haren nobela-itxurako irudimenenak soilik piztu zuen grina bero hori sublimatzeari ekin zion, bere buruaren gain lortutako garaipen bihurtuz:

Gehiegi maitatzen nuen hartaz gozatzeko. Gau batez, elkarrekin afaldu ondoren, paseatzera atera ginen ilargi-argitan zegoen lorategi batera. Aulki batean eserita haren ondoan, lorez jositako akazia baten pean, neure bihotzeko taupaden maila bereko mintzaira adierazten jakin izan nuen. Bizitza guztian hori lortu dudan lehen aldia eta bakarra izan zen, baina sublime egon nintzen, hala esaterik badago maitasun samurrenak eta sutsuenak gizakiaren bihotzean sor dezakeen gozo eta limurtzaile den guztiari. A ze nolako malko zoragarriak isuri nituen haren belaunetan! Azkenik, nahi gabeko suminaldi batek hartuta, oihuka esan zuen: Inoiz ez da sortu maitatua izateko hainbeste merezi izan duen gizonik, inoiz ez dut izan zuk bezala maitatu izan nauen maitalerik! Hala ere, Saint-Lambert gure lagunak entzun egiten digu eta nire bihotzak ezingo luke bi aldiz maitatzen jakin. Hasperen eginez isildu egin nintzen. Besarkatu egin nuen: a ze nolako besarkada! Baina hori izan zen guztia. Baziren sei hilabete bakarrik bizi zela, hau da, senarra eta maitalearengandik urruti; baziren halaber hiru hilabete ia egunero ikusten nuela. Bakar-bakarrik ginen eta haren lagunaren beso artetik atera zen sartu bezain ukigabe, guztiz garbi, gorputzez nahiz bihotzez. Ez dut deus ere gaineratuko.⁹

Hezkuntza, ideia erlijiosoak eta bidezko gizartea

Rousseauk, *Eloisa berrian* bertute moralak nola gauza zitezkeen deskribatu zuen; *Emilio*, edo *hezkuntzaz* izeneko lanean, berriz, haurraren hezkuntza-prozesuaren balizko deskribapena eginez, bertute horien garapena ikertzen

⁸ Sofia D'HOUEDEDOTI, 1757ko abenduaren 17a, «Laguntasuna», *Correspondance complète de Jean-Jacques Rousseau*, IV. bol., 274-278 or.

⁹ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, I. bol., 444-445 or.

du era sistematikoan. Gainera, prozesu hori burutzeko, Rousseauk errotik aldatzen du tutorearen funtzioa, horren zeregina giza izatearen ontasunari bide emateko tresna bilakatzen baitu. Berrikuntza sakon horrekin, Rousseau egungo heziketari buruzko ideien iradokitzailea dugu. Hortaz, hezkuntzak, zigorrak eta ezarpenak alde batera utzita, haurrak berez dituen jarduerak eta interesak izango ditu kontuan (autorregulazioa), eta ezagutzaz lepo dauden helduak sortu baino gehiago, pertsona heldu onak eta zoriontsuak bideratzeari ekingo dio. Rousseauk, *Entziklopediaren* proiektu pedagogikoaren aurka, *Emilio* aldarrikatuko du: heziketa, instrukzioaren orde; natura, maitasuna eta hezitzaileen begikotasuna, liburuetatik ateratako ezaupideak errepikatu beharrean; eta estimuluak, diziplinaren partez.

Harrigarria dirudien arren, heziketaren inguruko liburu horrek eta *Eloisa berria* nobela arrakastatsuak, irakurle-multzoarentzat, kontseilaririk desiratuen bilakatu zuten Rousseau, bai beraien tutore izateko, bai haien seme-alaben heziketa bideratzeko. Ospe horren lekuko Segurier de Saint-Brissoni¹⁰ eta Wuttenbergeko printzeari¹¹ zuzendutako gutunak ditugu. Horrek guztiak asetasun itzela emango zion Rousseauri, berak sortutako hainbat idatzitan haurtzaroari zion maitasun eztabaidaezina aldarrikatzen saiatu baitzen, *Ametsak* lanaren bederatzigarren paseoan esaten duen bezalaxe: «Munduko gauzarik sinestezi-nena litzateke *Eloisa* eta *Emilio* bezalako lanen egileak umeak ez maitatzea»¹².

Emilio izeneko lanaren IV. liburuan, «Bikario savoiarren fede aitortpena» idatzi zuen Rousseauk, erlijioaren inguruan zituen ideiak azaldu nahirik. Harentzat, esperientzia erlijiosoaren barne-esparrura mugatu behar da, bertan, gizakia Jainkoarekin, orden naturalaren egilearekin jartzen baita harremanetan. Erakunde erlijiosoak hortik kanpo gelditzen dira, teologoak, intolerantzia eta fanatismoa bezalaxe. Jarrera hori defendatzeagatik gaitzespen ugari jaso zituen: apezgo frantsesaren asanbladarena, Sorbonneko Unibertsitatearena, Parisko Lege Biltzarrarena, etab.; gainera, gaitzespen horiekin batera Rousseauren kontrako jazarpen aldia hasi zen garai hartan. Gertakari horiek, finean, bizitza osoan zehar sufrimendu handia ekarri zion pertsekuzio-maniaren eritasuna elikatu zuten.

Erljioak toki garrantzitsua du Rousseauren pentsamoldean, nahiz ikusmolde horrek *philosophe* askoren mesprezua edo axolagabetasuna eragitea lortu zuen: *Hitzarmenean* «erlijio zibilaren» aldeko jarrera defendatu zuen, eta gaia sarritan aurkitzen da, esaterako, ondorengo *Aitorpenetan* edo *Elkarrizketetan*. Jainkoa ordena naturalaren sortzaile, gaitza gizakien ekintza erratuaren

¹⁰ Segurier de Saint-Brisson jaunari, 1764ko uztailaren 22an, «Reconvenciones a un pupilo», *Correspondance complète de Jean-Jacques Rousseau*, XX. bol., 314-316 or.

¹¹ Wuttenberg printzeari, 1763ko azaroaren 10ean, «Emilioren zehaztapen bat», *Correspondance complète de Jean-Jacques Rousseau*, XVIII. bol., 115-124 or.

¹² ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, I. bol., 1088 or.

emaitza, eta kontzientzia gida hutsezinekoa: horra Rousseauk ximple eta xalo nahi zuen erlijiotasunaren oinarritzko printzipioak.

Beste alde batetik, gizakiaren bizitzak behar duen inguru politikoa azaldu zuen Rousseauk. Asmo horrekin idatzi zuen bere lanen artean luzaroan ezagutua eta famatuena izan dena: *Gizarte-Hitzarmena*, alegia.

Rousseuren ustez, antolamendu politikoaren arazo nagusia da desberdintasun naturalak gizartearen duen eragin biderkatzailea ezabatzea, eta horretarako, askatasuna, berdintasuna eta botere politikoa uztartu behar dira. Hala adierazten du Rousseauk:

Pertsona eta erkide bakoitzaren ondasunak guztiekiko edozein indar komunetik defenditu eta babestuko dituen erkidetze-era bat aurkitu, eta horren indarrez, bakoitzak, guztiekin bat eginez, ez diezaion obedi bere buruari baino eta lehen bezain libre gera dadila.¹³

Antolamendu politikoa gauzatzeko, Rousseuren ustez, honako oinarriak behar dira: gizartea osatu behar duten gizaki guztien *aho-batezko onespena*, eta horri «gizarte hitzarmena» edo *herri subiranotasuna* deritzo. Subiranotasun hori, guztien ongia bilatzen duen herritarraren sentimenduak inspiratuta, *borondate orokorrean* adierazten da. Hala ere, Rousseauk «borondate orokorra» eta «guztien borondatea» ezberdintzen ditu, eta azken hori gizaki bakoitzaren interes egoisten batuketa baino ez den bitartean, lehenbizikoa, aldiz, herritar askearen eta arduratsuen adierazpena den neurrian, ezingo litzateke berez kapritxozkoa edo arbitrarioa izan. Azkenik, «borondate orokorrak» *legea* sortuko luke, baina ez zeregin mugatzaile edo debekatzailea izateko; aitzitik, «borondate orokorraren» adierazpena den heinean, onartua eta errespetatua izateko, gizartearen benetako «indar eragilea» bihurtuz.

Intimitatea agerian

1764an *Aitorpenen* proiektua idaztea erabaki zuen Rousseauk. Urte horretan, Frantziatik ihes egin behar izan zuenean, Voltairek sinatu gabe argitara eman zuen *Herritarren sentimendua* izenburuko panfletoa jaso zuen. Idatzi horretan, Rousseauri bere bost seme-alabak umezurtegiaren utzi izana eta gaixotasun lotsagarri bat izatea leporatzen zitzaion. Gure egileak, hamabi urte lehenago, gai delikatu horren berri eman zuen bere gutunetan, lehenengoan

¹³ ROUSSEAU, J.J., *Del contrato social / discurso sobre las ciencias y las artes / Discurso sobre el origen y los fundamentos de la desigualdad entre los hombres* (Mauro Armíñoren itzulpena, hitzaurrea eta oharra), VI. atala. Alianza, Madrid, 1980. Euskaraz ere bada itzulpena, *Gizarte-Hitzarmena*, Klasikoak bilduman, eta *Gizakien arteko desberdintasunaren jatorri eta oinarriei buruzko mintzaldia*, LIMES bilduman.

irakur daitekeen moduan. Testu horretan, bere egoera eta umeen amarena kontuan hartuta, egokiena egin zuela baieztatzen du, eta erabaki hori zuri-tzeko Platonek Errepublikan erabilitako argudio beraz baliatzen da, hau da, bidezkoena «gizabanakoak aitaren berri ez izatea eta guztiak Estatuaren seme-alaba izatea»¹⁴ dela.

Salaketa horren ondorioz, Rousseuren lanak norabide berria hartu zuen eta, geroztik, bere buruaz aritzea eta leporatzen zitzaizkion ekintzak justifikatzea izan zen bere lanen ardatz nagusia. Esaten eta egiten zuenaren arteko koherentziarik eza aurpegiratzen zitzaion neurrian, bere lana, ondorioz, arazo pertsonal bihurtu eta bere burua idazkietako gai nagusi bilakatu zen. Baita jarrera hori erronka arriskutsu bihurtu ere: nork bere mozorroa kentzea, besteek horrelakorik egiten ez dutena, alegia. Edonola ere, autojustifikazioaren bidea honako lanetan gauzatzen da: *Aitorpenak* (autobiografiaren generoari hasiera emanez); *Elkarrizketak*; *Rousseau, Jean-Jacquesen epaile* (azken bi hauek idatzi zituen garai hartako lagunek, Rousseauk kontu zezakeenarekin izututa, atzeratu zutelako *Aitorpenak* argitaratzea), eta bukatu gabeko *Ibiltari bakartiaren ametsak* ederra.

Aldi berean, lan horiek egilearen gero eta baitaratze handiagoa erakusten dute: *Aitorpenetan*, garaiko gizonen aurrean erakusten du bere burua, *Elkarrizketetan* Rousseau da Jean-Jacques izeneko bat epaitzen duena, eta *Ametsak* bere buruari hitz egite bat besterik ez dira.

Testu horiei jarraituz, *Aitorpenen* zortzigarren liburuan, zegoen egoeran semeekin hartutako erabakiaren egokitasuna behin eta berriz azpimarratu zuen, ñabarduraren bat gehituz:

Jean-Jacques ezin zen inoiz sentimendurik gabeko gizakia izan, erra-rik gabekoa, aita desnaturalizatu bat. (...) Neure seme-alabak hezkuntza publikoaren esku jarri nituen, nik neuk ezin izan nituelako hezi eta, langile edo nekazari izateko bidean jartzean, menturazale edo zori bilatzaile baino lehen, herritar eta aita moduan aritu izana otu zitzaidan, platoniar errepublikako kide ikusi nuen-eta neure burua. Harrez geroztik, behin baino gehiagotan erratuta nengoela erakutsi didate bihotzaren damuek, baina neure arrazoa errakuntza hori baieztatetik urruti dago, eta askotan bedeinkatu dut zeruak (nire semeak) beraien aitaren patutik libre utzi izana.¹⁵

Alhadura erakutsi arren, Rousseau beti agertu zen defentsiban gai horren inguruan. Horra, esaterako, hiru adibide:

Lehena, *Ibiltari bakartiaren ametsetako* bederatzigarren paseoan:

¹⁴ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, II. bol., 144 or.

¹⁵ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, I. bol., 357 or.

Nire seme-alabak umezurtz-etxera bidaltzeak aita desnaturalizatu bat naizela eta umeak gorrotatzen ditudala pentsatzera eraman dezakeen arren, esan behar dut haiei ehun mila aldiz zori okerragoa eragozteak bultzatu ninduela pausu hori ematera, zeren, nire egoeran, amak hezi izango zituzkeen, eta alferrik galdu, edo haren familiak, eta munstro bilakatu.¹⁶

Bigarrena, ama gazte bati aholku ematen dionean:

Erruki izan patu zorrotz batek horrelako zoriontasuna ukatu dienekin, eta are gehiago errukitu errudunak badira. Eskerrak ematen dizkiot zeruari nire seme-alabak babestu dituelako, bizitzaren samintasunetik nik bakarrik edaten nuen bitartean; nahiago dut haiek ni ezagutu gabe egoera ilunean bizitzea, nire zorigaiztoen artean ikustea baino, nire etsaien eskuzabaltasun traidoreak doilorki elikatzen zituen bitartean eta haien aita gorrotatzen eta traizionatzen erakusten zieten bitartean; eta nahiago dut mila aldiz ahultasunagatik bere eginbeharra zaindu ez zuen zorigaiztoko aita bat, eta orain seme-alaben gabeziagatik negar egiten duena, lagunaren konfiantza traizionatu eta fidatu zitzaion sekretua, difamatzeko, jendarteratu zuen lagun faltsua baino.¹⁷

Azkenik, *Aitorpenen* azkeneko liburuko aipamen bat:

Hezkuntzari buruzko tratatuaz meditatzean, betebeharrak saihestezinak alboratu nituela sentitu nuen eta damu bizi horrek nire erruaren aitorpen publikoa egitera behartu ninduen ia Emilioren hasieran.¹⁸

Izan ere, seme-alaben inguruko gorabehera horrek bultzatu zuen Rousseau *Emilio edo hezkuntza* idaztera, 1761eko ekainean Luxenburgeko¹⁹ dukesari kontatzen dionaren arabera.

Gutun horretan *Emilioren* pasarte bat aipatzen du Rousseauk, aitaren betebeharrak azaltzen dituena, alegia:

Aita batek umeak sortzen eta elikatzen dituenean, lanaren herena baino ez du betetzen. Aita batek gizakiak zor dizkio espezieari, gizaki sozialak gizarteari, eta herritarrek Estatuari. Zor hirukoitz hori ordain dezakeen gizon bat erruduna da ez badu hori betetzen, are gehiago erdizka egiten duenean. Aitaren eginkizunak bete ezin dituena ez dadila aita izan.²⁰

¹⁶ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, I. bol., 1087 or.

¹⁷ *Berthiergo kondesari*, Monquin, 1770eko urtarrilaren 17an, «Eginbeharra bete izanaren zoriona», *Correspondance complète de Jean-Jacques Rousseau*, XXXVII. bol., 207 or.

¹⁸ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, I. bol., 594 or.

¹⁹ *Correspondance complète de Jean-Jacques Rousseau*, IX. bol., 15 or.

²⁰ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 262-263 or.

Rousseau eta moralitatea. Bihotzaren eremua eta kontzientziaren epaia

Rousseauk sentimendua goratu zuen behin eta berriro, bere argudio nagusia bilakatu arte. Hala zioen lehendabiziko *Gutun moraletan*: «Bizitzaren erabileraren inguruan ditudan sentimenduak azaltzen dizkizuedanean, ez dut zuei lezioak emateko inolako asmorik, nire fede aitortpena egitekoa baizik»²¹. Bide bera jarraitzen du Rousseauk «Bikario savoiarren fede aitortpena» (*Emilio* ixten duen laugarren liburua) idazten duenean, aurretik idatzitako materialak erabili baitzituen.

Hori horrela, paralelismo ugari aurkitzen da bi testuotan. Esaterako, lehenbiziko *Gutun moraletan*, honela esaten du: «Zure bihotzari galdegitea eskatzen dizut eta hark dioena bete dezazula; ez ezazu nire ahotsa entzun, Sofia, zureak berresten ez badu behintzat»²²; bikario savoiak, berriz, hauxe azalduko du: «Nire bihotzaren xalotasunean pentsatzen dudana zuri azaltzearekin nahikoa dut; galde egiozu zure bihotzari nire mintzaldiak irauten duen bitartean; hori da eskatzen dizudan guztia».²³

Zoriontasunari eskaintzen dion bigarren gutunean, nor bere burua hobeto ezagutzeko, Rousseauk, liburuak eta filosofoak alde batera utzita, nor bere baitan biltzea eta barnea aztertzeke ariketa egitea aholkatzen du.

Hirugarren gutunean, zientzien aurrerakada desmitifikatzen jarraitzen du, aurkikuntzen ugalketak jakintzaren balioa erlatibizatzen duela azpimarratuz. Filosofiaren eta zientzien jakituria ezbaian dauden neurrian, laugarren gutunean, Rousseauk nor bere baitan gida ziurra bilatzea proposatzen du:

Zeuen bihotzaren barrenetik atera nahi ditut zuek konbentzitzeko argumentu bakarrik. Hortaz, nirean gertatzen dena kontatuko dizuet. Nik neure barrenean sentitzen nuen, hala esan badaiteke, nire patuaren kontrapisua. Nire pasioen inperioa kulunkatzen zuen indar ezkutu horren printzipioa bilatzean jakin nuen, pentsatu gabe, hori nire bizitzako ekintzei buruz eta nire desioetako objektuei buruz gordetzen nuen epai sekretu batetik zetorrela... Aipatzen dizuedan printzipio horrek ez dit balio soilik nire oraingo ekintzak derrigortzen nauen araura zuzentzeko, baita nire garai bateko jokabidea era egokian baloratzeko ere, sarritan zentsuratzeko, itxuraz egokia izan arren, eta beste batzuetan ontzat emateko, gizonek kondenatu arren(...) Sekretupean epaitzen nauen ahots berberak eta nire bihotzak etengabe entzuten duenak zuen bihotzari ere hitz egiten badio, ikas ezazue entzuten eta jarraitzen, zure ondasun na-

²¹ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 262-263 or.

²² ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 1083 or.

²³ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 566 or.

gusiak zeure buruarengandik ateratzen ikas ezazu, horiek zoriaren menpe ez dauden bakarrak baitira, eta besteak ordezkia ditzaketelako.²⁴

Seigarrena eta azkena den gutunean, Rousseauk natura bakarka maiz bisitatzea gomendatzen du, haren hizkuntzarekin berriz ohitzeko eta gure kontzientziaren ahotsa hobeto entzun ahal izateko:

Dagoeneko, giza errakuntzen labirintoan badugu gida ziurra, baina ez da nahikoa hori izatea, hori ezagutzen eta jarraitzen jakin behar da eta. Gida horrek bihotzez hitz egiten badu, zergatik entzuten dute hain gutxi? Zoritxarrez, gaurko gizarteak ahaztarazi digun naturaren lengoian hitz egiten digu berak. Kontzientzia herabe eta beldurtia da, bakardadea bilatzen du, munduak eta zaratak izutu egiten dute, berak sortuak direla esaten diren aurreiritziak dira beraren etsai beldurgarrienak, horien aurrean alde egiten du, edo isildu egiten da, horien ahots zalapartatsuak harena itotzen du eta ez du entzuten uzten. Hainbeste aldiz ematen diogu ezetza, azkenean, aspertuta, ez baitigu hitz egiten, ez digu erantzuten eta, hainbeste mespretxu eta gero, kostatu egiten da haren laguntza jasotzea, lehen hura alboratzea kostatu zen bezala.²⁵

Berriro, erretorikoki, Rousseau eta Kant uztartuko ditugu, funtsean, arlo horretan, mezu bera plazaratzen baitute. Rousseauk *Gutun moraletako* bosgarrenaren hasieran zera baieztatzen du: «Giza bizitzaren moralitate guztia, gizonaren intentzioan datza»²⁶. Baina antzeko zerbait esan zuen Kantek arrakastaren moralari uko egitean eta bere baitako borondate ona goratzen zuenean; Kantek proposatzen duen etikan intentzioak dauka garrantzia, ez ekintzen emaitzak ezta horien eraginkortasunak ere.

Aurrerago, «nor bere baitan sartzea berezko joerak aztertzeke, edozein interes pertsonal alde batera utzita»²⁷ proposatzen du Rousseauk, eta Kantek jarraitzen dio esanez lege moralak betetzean geure joeretatik aske gelditzen garela, eta era moralean jokatzeko edozein interes partikular alboratu behar dela.

Hau gaineratzen du Rousseauk:

Gaiztakeria ezkutuak sekretupean zigortzen eta askotan agerian uzten dituen damuen garrasiaz hitz egiten da. Gutariko nork ez du entzun ahots deseroso hori? Eskarmentuagatik hitz egiten da; hainbesteko tormentu ekartzen digun nahigabeko sentimendua ezabatzea gustatuko litzaiguke beti.²⁸

²⁴ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 1102-1105 or.

²⁵ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 112 or.

²⁶ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 1106 or.

²⁷ *Ibid.*

²⁸ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 1107 or.

Hori irakurrita, ezin da ahaztu *Ohituren metafisikan* azaltzen den gure kontzientziaren epaimahaiaren metafora kantiarra:

Edozein gizonek kontzientzia morala du eta barne epaile batek behatua aurkitzen da (...) ez da berez asmatutako zerbait, ez da era arbitrarioan ematen, baizik eta bere izaerari erantsita dator. Itzala bezala jarraitzen dio ihes egitea pentsatzen duenean. Egia esan, zorabiatu edo lokartu daiteke plazeren eta olgeten bitartez, baina, bere ahots beldurgarria entzun bezain laster, bere baitara itzultzea edo esnatzea besterik ez du (...) Jatorrizko jarrera moral hori, betebeharraren irudikapen den hori, hori da kontzientzia morala.²⁹

Rousseauren diskurtsoarekin segituz gero, ondorengoa aurkitzen dugu:

Baina naturari obeditzen badiogu, berak ordenatu duena zein ezitasunez onesten duen egiaztatuko dugu eta zer nolako xarma topatuko duen bere barne bakea gozatzen bere buruarekin pozik dagoen arima batek.³⁰

Kontent dagoen arimaren barne bake hori Kanten hitzetan, *Arrazoi praktikoaren kritikan*, zera da: «bertutearen kontzientziari nahitaez lotuta datozen nor bere buruarekin pozik egotea».³¹

Rousseau gaizkileaz mintzatzen da aurrerago:

Bere buruari beldurra dio eta ihes egiten dio (...); barre egitea eragin-gio dion zerbait bilatzen du; beti triste legoke txantxa iraingarririk gabe; zuzenak, aldiz, barnekoa du lasaitasuna.³²

Kantek, hizkera prusiarragoa erabiliz, antzeko zerbait dio:

Kontzientzia moralaren epaia absoluziozkoa ala kondenatzailea da; lehenengoak pozik egotea dakar, erruduna izateko arriskutik alde egitea suposatu duelako, eta horrek egonezinaren ondorengo barealdiaren antzeko pozgarria ekartzen du.³³

Rousseauren ustez, arimarik ustelenak ere miresten ditu barkatzeko gaitasuna edo eskuzabaltasuna bezalako baloreak:

Nork ez dio bere buruari esaten: beste hainbeste egin izan banu? Ari-ma ustelenek ere ez dute lehendabiziko joera hori galtzen: bidaiariei os-

²⁹ Ak., VI, 438 or.

³⁰ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 1107 or.

³¹ Ak., V, 117 or.

³² Ak., VI, 439 or.

³³ Ak., VI, 440 or.

ten dien lapurak ere estaltzen du txiroaren larrugorritasuna, hiltzailerik krudelenak ere ez dio ahula babesteari utziko, eta traidoreek ere, elkar hartzen dutenean, bostekoa ematen diote elkarri, eta hitza eman eta begirunea erakusten dute. Gizaki maltzurra, egiten duzuna eginda ere, zuzan ez dut gaizto inkontsekuente eta trakets bat baino ikusten, naturak ez baitzaitu sortu horrelakoa izateko.³⁴

Kant horretan ere bat dator Rousseurekin. Begira, bestela, zer dioen *Ohi-turen metafisikarako fundamentazioan*:

Ez da inor, ezta gaizkileen arteko zitalena ere, arrazoia erabiltzen ohi-tua badago, xede ondraduko, eredu zintzoko eta errukitasuneko nahiz borondate oneko adibideak proposatuta —onuragarritasuna gehitzen badiogu— jarraitu nahiko ez lukeenik.³⁵

Hortaz, bi egile horientzat, gure barneko kontzientzia morala da hel egiteko dugun azken instantzia, epaile nagusi eta apelaezina.

Rousseauk defendatzen du arima guztietan *berezko* printzipio bat badela, justizia eta egia moralaren inguruan, aurreiritzi nazionalak edo hezkuntzaren aholkuak baino lehenagokoa. Guk printzipio horren arabera epaitzen ditugu, on edo txar gisa, gure ekintzak nahiz besteenak, eta printzipio horri kontzientzia deritzo³⁶. Kantek ere, *Arrazoi praktikoaren kritikan*, azaltzen du gizakiak, legearen aurkako portaeraren bat gogora ekartzean, bere burua errugabetzat aurkez dezakeela era desberdinetako justifikazioak erabilia: intentziorik gabeko irristada, ustekabe soila, edota beharraren indarra. Baina gizakia ohartzen da defentsa horiek ezin dutela isildu bere baitan hitz egiten duen fiskal salatailea, eta gaitasun hori kontzientzia morala da.³⁷

Jarrera horietatik abiatuta, saihestezina da bertuteaz hitz egitea, eta atal hau zuzenean lotu nahi dugu azken azpigituluarekin, «Rousseau, iraultzaren apostolu» izenekoarekin. Hori horrela, *Gutun moralen* azkenekoan, eta «Bikario savoiarraren fede aitorpenean», Rousseauk azaltzen du ezinezkoa dela bertutea lortzea merezi izan arte, hau da, ongi jokatzearen ondoriozko saria dela bertutea. Eta jarraitzen du:

Ezer ez dago bertutea baino atseginagorik, baina bera ez da den bezalakoa agertzen bere jabe direnen aurrean baizik; besarkatu nahi dugunean azaltzen da distira osoz, alegiako Proteon bezala, non hasieran mila itxura beldugarri hartzen dituen eta ez den agertzen den bezalakoa beraz jabetu arte.³⁸

³⁴ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 1107 or.

³⁵ Ak., IV, 454 or.

³⁶ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 1108 or.

³⁷ Ak., V, 98 or.

³⁸ ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 1118 or.

Ohituren metafisikan, hauxe dio Kantek:

Gizakiak bizioen ziria gainditzen duenean, sarritan zaila den eginbe-harra bete duela kontziente denean, barne lasaitasuna aurkitzen du bere gogoan, zoriontasuna dei dakiokkeen poztasuna, bertutearen sari moduko bat.³⁹

Bi autore hauen ustez, bertutea ez da gizakiak berez jasotzen duen do-haina, ahalegin handia eskatzen duen konkista baizik. *Arrazoi praktikoaren kritikan*, Kantentzat «bertutea intentzio morala borrokan» litzateke, eta Rousseauk zera azpimarratzen du:

Ez dago borrokarik gabeko bertuterik, ezta garaipenik gabekorik ere. Bertutea ez da zuzena izatea soilik, pasioak garaituta behar du izan, biho-tzean nagusituz.⁴⁰

Edota «bertutea geure buruaren aurkako borrokaldiak dakar, eta meritua garaipenaren zailtasunetik dator»⁴¹. *Emilion* borobiltzen du ideia hori Rousseauk:

Ez dago inolako zoriontasunik ahaleginik gabe, ezta bertuterik ere borrokarik gabe (...) Indarra da edozein bertuteraren oinarria (...) Zein da gizon bertutetsua? Afektuak garaitzen dakiena. Orduan jarraitzen baitio bere arrazoiari, bere kontzientziari, bere betebeharrari.⁴²

Rousseau, iraultzaren apostolu

Maximilien Marie Isidor Robespierre ondare horren jarraitzaile leiala izan zen, eta horren diskurtsoek iraultzaile *avant-la-lettre* bilakatu zuten Rousseau, «gaur biziko balitz, gure alderdian legoke, barrikadetan, kaleetan», iraultzaren aitzindari bihurtuz:

Aipatu garaian, letretan eta filosofian izan zirenen artean, gizon bat, bere arimaren eta izaeraren handitasunagatik, agertu zen gizateriaren maisutzarako duina. (...) A, bera Panteoira (1793ko urriaren 12an) era-man duen iraultza honen lekuko izan balitz! Nork jar zezakeen zalantzan

³⁹ Ak., VI, 377 or.

⁴⁰ Franquières jaunari, Bourgoin, 1769ko urtarrilaren 15ean, 40. zenb., *Correspondance complète de Jean-Jacques Rousseau*, XXXVII. bol., 21 or.

⁴¹ Carondeletoke abadeari, 1764ko martxoaren 4an, 33. zenb. «Bertutearen kontzeptuaz», *Correspondance complète de Jean-Jacques Rousseau*, XIX. bol., 198 or.

⁴² ROUSSEAU, J.J., *Œuvres complètes*, IV. bol., 817 or.

beraren arima eskuzabalak justiziaren eta berdintasunaren kausa entusiastoz besarkatuko zuenik?⁴³

1794ko maiatzaren 7ko diskurtso horretan, beharbada Rousseauk artisten eta zientzialarien balioaren inguruan zuen iritzi eszeptikoa gogora ekarri, Robespierrek Iraultzari bizkarra eman ziotela egotzi zien intelektualei, eta haien ardura garratzasunez azaldu zuen, hau da, orokorrean eta «haien betiko lotsarako, herriaren arrazoiak bakar-bakarrik egin behar izan du(ela) guztia».

Mintzaldi horretan, gainera, Robespierrek «Izaki Gorena»ren kultua ezartzea proposatu zion Konbentzioari, eta urtean hogeita hamasei jai nazional iragarri zituen, «ernaberritzerako osagarri ahaltsu» izan behar zutenak. Jai horien artetik nagusia «Izaki Gorena»rena izango zen, 1794ko ekainaren 8an aurreneko aldiz ospatu zena. *Mise en scène* delakoa Jacques-Louis Daviden esku geratu zen. Bezperan, jaialdiaren nondik norakoak prentsaren bidez eman ziren jakitera: «Lagunak, anai-arrebak, senar-emazteak, adindunak elkar besarkatzen dira; arrosa sortak daramatzate eskuetan amek; ezpataz armatutako semeak gidatzen dituzte aitek; batzuek eta besteek haritz adar bana daramate».

Ospakizunak desfilearen itxura hartu zuen; prozesioa gelditzeko markatutako tokietan, diskurtsoak bota eta Robespierrek zuzendutako «liturgiaren» araberako zeremoniak gauzatu ziren: Tullerietako mintzaldiaren amaierarako, material sukoiez eginiko ateismoaren estatuari su eman zion, jakintzaren omezezko beste bat agertzen zen bitartean (egia esan, askok patu txartzat hartu zuten, arazo tekniko bat medio, jakintzaren estatua keak belztuta gelditu izana). Azkenik, Marteren Zelaian, jaialdiari bukaera emateko, ereserki bat abestu zen eta amaierako estrofa bertan zeuden guztiek batera kantatu zuten.⁴⁴

Robespierrek 1794ko maiatzaren 7an emandako diskurtsoaren ondoren, Konbentzioak «Izaki Gorena»ren kultuaren dekretuari baietza eman zion, eta Rousseauk iradokitako erlijio zibila ezarri zen. Horrela, aurrekorik ez zuen operazioa garatu zuen Iraultzak, hau da, gorputz politikoa eta soziala batu, eta bigarrena lehenengoaren bitartez eraiki. Finean, legea ohitura bilakatu zen, eta gizartea «erlijio zibil» bihurtu.

Rousseauk *Gizarte-Hitzarmena* obran esana zuen:

Beharrezkoa da «erlijio» edo «fede aitorten zibila» finkatua egotea, eta soziabilitaterako arau horiek subiranoari dagozkio ezartzea, «herritar onaren» eta «mendeko leialaren» jokabidea horietara egokitu ahal izateko.

⁴³ Robespierre, Rousseauaren gorazarrea Konbentzio Nazionalaren aurrean, II. urteko Florealeko 18an (1794ko maiatzaren 7an). Diskurtsoaren izenburua hauxe zen: *Printzipio errepublikarrak eta ideia erlijiosoen eta moralen arteko erlazioaz, eta nazio-festen inguruan.*

⁴⁴ *Le Moniteur*, 1794ko ekainaren 9an.

teko, herritar bakoitzak bere betebeharrak maitatzeari bultzatzen dion erlijioa izatea Estuaren ardura baita.⁴⁵

«Izaki Gorena»ren kultura aldarrikatzen zuen dekretuarekin publikoki iragarri zuen Robespierrek: «Herri frantsesak arimaren hilezkortasunean sinesten du eta, Izaki Gorena onartzen duen neurrian, ateismoaren guztiz kontrakoa da».⁴⁶

Jainkotasun hori hezurmamitzeko *L'Hymne du Père de L'Univers* eta *L'Hymne à L'Être suprême* izeneko ereserkiak konposatu eta ateismoa irudikatzen zuten irudiak erre ziren, kontrako ideia adierazten zuten berriak eraikiz. Erlijio berriaren egitasmoa gauzatzeko, Segurantza Publikorako Batzordean agertu bezala, Robespierrek, ikuspegi erlijioso eta errepublikarretik, Izaki Gorenaren ideiak zituen abantaila ugariak eta Estatuari zekarzkion onurak azpimarratu zituen, baina erlijioak apezgotik libre behar zuela zehaztu zuen, Izaki Gorenaren benetako apeza Natura baitzen. Iritzi horrek *spiritualité républicaine* delakoaren ideia indartu nahi zuen. Aipatutako dekretuak «*la foi de la nation en l'Être Suprême et l'immortalité de l'âme*» aldarrikatu zituen.

Robespierrek, Rousseauren jarraitzaile leialak, beti defendatu zuen haren-gandik jaso zuen proiektu zibilaren beharrezkotasuna, eta bere diskurtsoetan azkena izango zen hartan ere filosofoaren ideien isla erakutsi zuen:

Zertarako bizi nahi izan egiaren gainetik azpijokoa gailentzen den antolamendu batean, gizateriaren interes sakratuaren orde z pasio baxue-
nek eta beldur barregarriek bihotzak betetzen dituztenez? ⁴⁷

Eta honela jarraitzen du:

Historian ikusi dut kalumniak zapalduta daudela askatasunaren defendatzaile guztiak; baina haien zapaltzaileak ere hilda daude. Onak eta gaiztoak lurretik desagertzen dira, baina oso baldintza ezberdinetan (...) Heriotza hilezkortasunaren hasiera da (...) ez dezagun gure burua tronpa; arrazoian eta berdintasunean oinarri duen Errepublika itzela sortzea, inperio honen atal guztiak lotura indartsuaz kateatuta edukitzea ez da arintasunez aurrera eramán daitekeen enpresa: bertutearen eta giza arrazoiaren maisu-lana da.⁴⁸

Robespierrek ez du zalantzarik:

Esan dezagun, beraz, askatasun publikoaren aurkako konspirazio bat dagoela (...) Orduan, zer egingo dugu? Geure eginbeharrari aurre egingo

⁴⁵ IV Liburua, 8. kapitulua.

⁴⁶ Maximilien Marie Isidor Robespierren azken diskurtsoa, II urteko Termidorreko 8an (1794ko uztailearen 26an) Konbentzio Nazionalan.

⁴⁷ *Ibid.*

⁴⁸ *Ibid.*

diogu. Zer aurpegira dakioko arrazoi duela dakien eta bere herriaren alde hiltzen dakien gizon bati? ⁴⁹

Azkenik, sententzia hau luzatzen du:

Doilorrek herria traizionatzeko legea inposatzen digute, gu traidore deituta. Lege horrekin bat egingo dugu? Ez: herria defendatuko dugu. (...) urkabera igo daitezela haiek krimenaren bidetik, eta gu, bertutearenetik.⁵⁰

Ondorio moduan eta Rousseuren eredu (Robespierrearen eskutik gauzatu) kontrastean jartzeko, interesgarria iruditzen zaigu Hannah Arendtek *Iraultzak* izeneko lanean egiten duen analisia gogora ekartzea. Bertan Frantziako Iraultzak izan zuen aldi askatzailea azpimarratzen du, miseria eta pobree-nenganako errukiak eta haienganako joera afektiboak markatzen dute iraultza hori. Baina, neurri berean, gidari modura hartu zuen bertute hori ez zitzaion lan politikoaren aholkulari onena iruditzen, arrazoiaren ordeztimenduari hel egiten baitzion. Aldi askatzaile horren paradigma, mugarik gabe aritu zena eta emozioen ur bihurrietan murgildua, Robespierrearen portaera politikoak eskaintzen du, herriaren sufrimenduaren izenean bihotz-gogor izan daitekeela justifikatzen du eta: «Par pitié, par amour, pour l'humanité, soyez inhumains!»⁵¹

Erreferentzia bibliografikoak

ARENDET, Hannah, *Sobre la revolución*, Alianza, Madrid, 1988.

BERMUDO, J. M., *Rousseau. La profesión de fe del vicario saboyano*, Montesinos, Barcelona, 1984.

KANT, I., *Gesammelte Schriften*, Prusiako Zientzietako Akademiak hasitako edizioa eta egun Berlinen jarraitzen duena, Walter Gruyter, 1907-1983, 30 liburuki. Kanten aipamenak «Ak» laburdurarekin adierazten dira, liburukiaren zenbaki erromatarra eta orrialdearen zenbaki arabiarra erabiliz jarraian. Edizio alemaniarrean aipatzen diren Kanten lan guztiak hari dagokion espainiar edizioan ere aipatzen dira.

LÓPEZ HERNÁNDEZ, J., *La ley del corazón. Un estudio sobre Rousseau*, Universidad de Murcia, 1989.

MONDOLFO, Rodolfo, *Rousseau y la conciencia moderna*, Eudeba, Buenos Aires, 1962.

PHILONENKO, Alexis, *Rousseau et la pensée du malheur*, J. Vrin, Paris, 1984, 3 liburuki.

ROBESPIERRE, Maximilien Marie Isidor, *La revolución jacobina*, Jaume Fusteren itzulpena eta hitzaurrea, Nexos, Barcelona, 1973.

⁴⁹ *Ibid.*

⁵⁰ *Ibid.*

⁵¹ ARENDET, H., *Sobre la revolución*, 90 or.

- ROUSSEAU, Jean-Jacques, *Correspondance complète de Jean Jacques Rousseau* (R. A. Leighek ezarritako edizio kritikoa, oharrak barne), Institut eta Musée Voltaire /Voltaire Foundation, Genève, 1965-1988, 52 liburuki.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques, *Œuvres complètes* (Bernard Gagnebinen eta Marcel Raymonden zuzendaritzapean argitara emandako edizioa), Gallimard, Paris, 1959-1995, 5 liburuki.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques, *Las confesiones* (Mauro Armiñoren itzulpena, hitzaurrea eta oharrak), Alianza, Madrid, 1997.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques, *Las ensoñaciones del paseante solitario* (Mauro Armiñoren itzulpena, hitzaurrea eta oharrak), Alianza, Madrid, 1979.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques, *Del contrato social / Discurso sobre las ciencias y las artes / Discurso sobre el origen y los fundamentos de la desigualdad entre los hombres* (Mauro Armiñoren itzulpena, hitzaurrea eta oharrak), Alianza, Madrid, 1980.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques, *Emilio o la educación* (Mauro Armiñoren itzulpena, hitzaurrea eta oharrak), Alianza, Madrid, 1990.
- ROUSSEAU, Jean-Jacques, *Las confesiones* (Mauro Armiñoren itzulpena, hitzaurrea eta oharrak), Alianza, Madrid, 1997.: ROUSSEAU, Jean-Jacques: *Emilio y Sofía* (Julio Seoane Pinillaren hitzaurrea, oharrak eta atariko ikerlana), Tecnos, Madrid, 1985.
- RUBIO-CARRACEDO, José, *Rousseau en Kant*, Universidad Externado de Colombia, Bogotá, 1988.
- TROUSSON, Raymond, *Jean-Jacques Rousseau*, Tallandier, Paris, 2003.